



## FAMILIENTZAKO INFORMAZIOA

### PEDIATRIAKO EGUNEKO OSPITALEKO ENDOKRINO-PROBAK: HIPOGLUZEMIA TESTA

#### Zertan datza proba?

Proba intsulina erabiliz hipogluzemia eragitea da, hazteko hormona (GH) jariatzea estimulatzeko.

Unitatean sartzean, 114. gelan egongo da, haurra pisatu egingo da, konstanteak hartuko zaizkio eta zain-bide bat bideratuko zaio. Protokoloari jarraituz, medikazio bat emango zaio ahotik, eta, ondoren, hainbat analisi aterako dira zain-bide horretatik.

#### Nola prestatu behar da proba egiteko?

Aurreko gauerditik baraurik egon behar da. Bezperan ondo afaltzea gomendatzen da.

Ospitalera joan baino ordubete lehenago, EMLA krema eman behar zaio haurrari besoen bi tolesturetan (segitu EMLA kremaren jarraibideak).

#### Kontuan hartzekoa:

Proba horrek hipogluzemia eragin dezake, eta garrantzitsua da adi egotea, izan ere, haurrak honako sintoma hauek izan ditzake: zurbiltasuna, izerdi hotza, gose-sentsazioa, buruko mina edo nekea.